

ARGIA.EUS/LARRUN

# GLOVOLIZAZIOA



# LARRUN #241

**ESPLOTAZIO MOLDE BERRIEN LEKUKOTZA**

# GLOVORENTZAT LANEAN ARITU NAIZ GASTEIZEN

EGILEA | **PAUL IANO**

ITZULTZAILEA | **DIEGO PALLÉS LAPUENTE**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

ARGAZKIAK | **DOS POR DOS / KAULDI IRIONDO**

**2**015ean sortu zen Glovo. Garraio enpresa bat da. Haren berezitasuna da edozein motatako gauzak ordubete baino lehenago banatzen dituztela bizikletaz nagusiki mugitzen diren langileek. Hasiara-hasieratik mundu osoan barreiatzeari ekin dio, eta hain azkarra izan da hedapena ezen oraindik ezin izan dugun behar bezala aztertu gure bizitzetan izan duen eragina. Enpresak darabiltzan negozio eredua eta marketin estrategia AEBetako Silicon Valley-n beste erraldoi teknologikoen garatu eta perfektionatu dituzte –Google, Uber eta Facebookek kasu–. “Plataforma” berri hauek enpresaren eta langileen arteko harreman eredu berria ezarri dute, baita gizartearekiko lotura

ere. Beren burua jendartetik kanpo kokatzeko pribilegioa lortu dute, eta hala, inor gutxiri onartzen zaizkion jokabideak etxeko marka bihurtu dituzte: zergak ez ordaintzea, lan baldintza duinak ez bermatzea eta orohar, bere langileek egunerokoan egiten dutenarekiko ardurarik ez hartzea beren gain. Dinamika honek ondorio arriskutsuak eragiten dituela agerikoa da AEBetan. Egoera distopikoa sortu dute, non langileen eskubiderik oinarritzkoenak amets bilakatu dituzten eta muturreko esplotazioa arau. Barrutik ezagutu nahi nuen fenomeno berri hau eta horregatik hainbat hilabetez Glovorentzat Gasteizen lan egitea erabaki nuen. Bizi izandakoa jaso dut ondorengo orrietan.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.641 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2019ko apirilaren 21a

---

## “Askatasuna”

**H**anburgesa garestiak saltzen dituen Gasteizko jatetxe modernoxka baten kanpoaldean nago, zutik, bizikleta nire alboan dudala, zigarroa eskuan. Gaur bigarrenez nago jatetxe berean. Sakeleko telefonoaren erlojuari behin eta berriz begiratzen diot: tik-tak, tik-tak. Minutu bakoitzeko bost zentimo ordaintzen dizkidate eta dagoeneko ordubete daramat itxaroten. Sukaldetik poltsa marroi batean pare bat hanburgesa atera dizkidate eta lan honetan gustuko dudana gauza bakarri ekin diot: bizikletaz abiadura arriskutsuz hirian barna ibiltzea.

Lanaldia bukatu ondoren, gutxi gorabeherako kalkuluak egin ditut: lanean izan naizen 200 minutuetatik 70 baino ez ditut jardun nire zeregin nagusian; alegia, bizikletaz ibiltzen eta bezeroekin harreman-tzen. 104 minutu janariaren zain eman ditut. Horixe bihurtu baita Glovo konpainiarentzat egiten duan lanaren zatirik garrantzitsue-na: zain egotea.

Honela funtzionatzen du Glovok: egun batzuk lehenago, mugikor-reko aplikazioan adierazi behar dituzu astean egin nahi dituzun lanor-duak. Hasiberriek gaueko txandak baino ezin dituzte hartu, asteburu gauekoak gehienbat. Lanaldia has-tean, eskaeren zain geratzen zara. Denbora puska bat har lezakeen prozesua da hau. Behin mugiko-rrean mandatua jasota, jatetxe edo dendara joaten zara bizikletaz eta han, berriz ere itxaron beharko ja-naria prest egon arte –taberna eta egunaren arabera, 10 minutu eta ordubete artean-. Horren ostean, ordainagiriari argazkia atera eta be-zeroarengana joaten zara, sarritan hiria alderik alde zeharkatuz. Ha-raino iristean, bezeroak hatz-mar-karekin mugikor-reko aplikazioan

sinatu, janaria jaso eta berriz ere kalera ateratzen zara hurrengo es-kaeraren zain egotera. Puntako or-dua ez bada, ziur aski hiriguneraino iritsiko zara eskaera berririk lortu baino lehen, algoritmo batek jate-txearen eta banatzailearen arteko gertutasunaren arabera esleitzen baitizkie eskariak garraiolariei.

Glovok saldu nahi duen irudia-ren arabera, langileek nahi duten ordutegia aukeratzeko “askatasuna” dute eta edonoiz alda dezakete ino-lako ondorio negatiborik gabe, baita txandaren erdian ere. Errealitatea oso bestelakoa da, ordea: ia-ia ja-naria baino ez dugu banatzen, beraz, jatorduetan lan egin behar duzu. Horren arabera, esan genezake or-dutegia aldeztetik erabakita da-goela: lagunekin bazkalosteko kafea hartzeko edota atsedean hartzeko erabiltzen ditugun ordu horietan ariko zara lanean. Horrez gain, teo-rian behin ordutegia hautatuta hura aldatzeko aukera existitzen bada ere, askotan hala eginez gero, “bi-kaintasun puntuazioa” deritzoten rankingean behera egingo duzu, eta horrekin batera eskariak lortzeko aukerak urritu egingo zaizkizu.

Eskaerak atzera bota ditzakegula dio Glovok, baina eskariak automati-koki onartzen dituen aplikazioaren botoia aktibatzeraz bultzatzen zai-tuzte. Botoi hori ez sakatzea eraba-kiz gero, “bikaintasun puntuazioan” behera egingo duzu azkar berriz ere. Aktibatu ala ez, eskaerak punta-ko orduetan baino ez dira agertzen eta hauek zuzenean esleitzen zai-zkie aukera hori markatu duten lan-gileei. Bestalde, onarpen automati-koa aktibatuz gero, eskaerak erraz iritsiko zaizkizu mugikorrera, baina, batek daki zergatik, ematen du itxa-ronaldi luzeena duten eskaerak beti txanda amaitzean dagoenean iristen

### Egilea



**PAUL IANO**  
AEB, 1993

Paul Iano orain hiru urte Gas-teizera bizitzera etorri zen. Or-dutik, “arima ez suntsitzeko moduko lanbide arraroetan” aritu da. Biolentzia armatua-ren eta errepresio molde ai-tzindariaren arabera bizi den lurraldetik hona iritsitako etorkintzat du bere burua. AEBetako “garapen” ereduak etorkizunean Euskal Herrian izan dezakeen eraginaren gai-nean argia jartzen saiatzen ari da. Ianok pribatutasuna gor-detzea ere maite du.

direla. Hitz gutxitan, hasiera batean eskaintzen dizuten ustezko ordutegi-askatasuna lausotu eta konpainiak ondo zehaztutako ordutegia inposatzen da; denbora eta dirua galdu nahi ez badituzu, behintzat. Hala ere, uler dezaket “askatasunaren” ideia saltzea eraginkorragoa dela marketinaren ikuspegitik.

“

**BEREHALA  
KONTRATATU NINDUTEN,  
INOLAKO HAUTAKETA  
PROZESURIK EGIN GABE.  
“ELKARRIZKETA FASE”  
OSOAN GALDERA BAKARRA  
EGIN ZIDATEN:  
BIZIKLETA ALA MOTORRA?**

Orain arte azaldutakoa kontuan izanda, oro har, lan honetan nahiko pozik izan naiz. Glovon izena eman nuen haientzako “kolaboratzaile” lanetan egotea zer zen ikertzeko, Espainiako Estatuan azkarren hedatzen ari den enpresetariko bat baita. Baina, bizikletaz ibiltzea gustatzen zaidanez eta aspaldiko partez horretan aritzen ez nintzenez, esperientziaz gozatu dut. Aldi berean, ordea, zaila egiten zitzaidan ulertzea sistema honekin nola irits daitezkeen hil amaierara lankideak. Hemen ez dut familiarik, ezta hipoteka bat ordaindu beharrik ere, baina nahiz eta egunero bizikleta gainean orduak eta orduak eman, diru gutxiago irabazi dut aurretik neukan lanarekin alderatuz gero –lanaldi erdian ingeles eskolak ematen nituen–. Lan honek gimnasioaren kuotaz libratzen banau ere, ez ditu diru-sarrera eskas hauek konpentsatzen.



## 'Gloverra' izatearen zirrarra



**G**lovo ikertzera hainbat arrazoik bultzatu ninduten. AEBetakoak naiz, nire herrialdetik orain dela zortzi urte inguru joan nintzen. Belaunaldi berri bateko kidea izan nintzen, teknologiaren eskutik etorkizun oparo eta liluragarri batean bizitzea zen gure patua. Geure begien aurrean, Facebooken izena ezagun egin zen planeta osoan, Appleko Ipod iPhone bihurtu ziren eta Netflixek egongelako telebista ordezkatu zuen. Esan beharra dago ni mundu horretatik aldentuta bizi nintzela smartphone sofisticatuek aplikazioen bidezko bizimodua inposatu aurretik, gizartearen sustrai eta muin bihurtu baino lehen. Txikitan, eskolako lanak egiteko eta doako jokoetan aritzeko gehiegikeria besterik ez zen Internet. Amerikako Estatu Batuak utzi nituenean, aldaketen lehen zantzuak sumatzen hasiak ziren gizartean eta lan munduan. Hango bizimodua atzean uztea erabaki nuen gainbeheran zegoela ikusi eta gero *gig* ekonomiaren eraginez. Sareko plataforma baten bitartez eskaintako lan txikietan lan egiteko prest dagoen jendearen ekonomia da hori. *Gig* ekonomiaren sustatzaile nagusiak enpresa teknologikoak dira, AEBetako bizimodua gero eta gogorrrago bihurtu izanaren erantzuleetako batzuk dira. Euskal Herrian topatu dudana bizi kalitate harrigarria haien faltaren seinale argia delakoan nago.

Hemen bizi naizenetik, ardura moduko bat sentitzen dut jendea Gloveri eta bere antzekoei buruz ohar-tarazteko. Hasiera batean horrelako aldatetak bitxikeriazat ditu jendeak, etorri bezala joango direlakoan. Ez du ondo ulertzen nazioarteko joera baten aurrean gaudela, edo ez du ulertu nahi. Horregatik, euskaldun asko eta asko harri eta zur geratzen dira AEBetako egoera deskribatzen diedanean: prezio altuak, 60 orduko lanaldiak eta, oro har, bizi kalitate es-

kasa. *Aukeren herrialdean* ondorengo ezaugarri "pribilegiatuak" aurki daitezke: LH eta DBHko irakasleek bi edo hiru lan kontratu behar izaten dituzte alokairuak ordaindu ahal izateko; gaixotasun mentalak ez dira artatuak izaten milioika pertsonak ez dutelako osasun zerbitzurik eta aseguruak duten familiek ozta-ozta jasotzen dituzte osasun zerbitzu ezin oinarritzakoagoak hileroko 500 dolar ordainduta. Oporraldiak eta erretiroa imajinaezinak dira -pentsioak zer esanik ez- eta langileak behartuta daude telefono dei eta mezu elektronikoak haien lanaldietatik kanpo erantzutera. Lanean dauden familietako gurasoak ezin dira seme-alabek arduratu, eta hauek hazi eta gero, haientzako goi mailako ikasketek urtero 20.000 eta 40.000 dolar arteko kostua izaten dute (18.000 eta 35.000 euro artean). Landa eremuari dagokionez, ekonomikoki erabat atzeratuta geratu da jendea lantegi zaharretatik kanporatua izan delako, teknologia berrien biktima. Hiri handi eta aberatsetan, berriz, lana egon badago, baina baldintzak zentzugabeak bezain negargarriak dira: lan bat baino gehiago edukitzeak ere, ordu kopuru eskerga inbertituz eta soldata potoloa kobratuz, ez du bermatzen alokairua ordaintzeko gai izango zarenik.

Euskal Herrian egoera oso bes-telakoa da: sindikatuek eta langile espezializatuek atzeratu egin dituzte AEB jatorri duten "hobekuntza" horietako batzuk. Hemendik begiratuta, oso zaila da ikustea motxila horidunarekin bizikletaz ibiltzen diren banatzaileek dakarten arriskua. Historikoki, aldateta handiak apurka-apurka garatu ohi dira, status quo bihurtu arte. Euskal gizartean bizi den estatubatuarra naizenez, indar suntsitzaile hauen hedaturari aurre egiteko beharra sentitu nuen.



Hortaz, Glovoren aurka altxatze-ko, haren parte izatea erabaki nuen. Bi orduko bilerak jasan nituen, eta autonomoetan alta egin nuen administrazio kudeaketetan jarduten duen enpresa batekin –jakina, neure poltsikotik ordainduta–. Berehala kontratatu ninduten, inolako hautaketa prozesurik egin gabe. “Elkarrietzeta fase” osoan galdera bakarra egin zidaten: bizikleta ala motorra?


Lehenengo gau hartan, urduri eta zirrara puntu batekin nengoen, etxe azpian itxaroten bizikleta gainean. Lehenengo 20 minutuetan eskaera bat jaso nuen mugikorrean, eta zirrarak hartuta, ziztu bizian eskaera punturantz lastertu nintzen. Hasierako emozio hori segituan frustrazio bihurtu zen, ordubete alferrik eman bainuen zerbitzu teknikoari deika, ordainagiriaren argazkia aplikaziora igo ezinean. Komeriak komeria, janari fardel egokia banatu nuela frogatu eta gero, mugikorreko datuak agortu

egin zitzaizkidan. BEZa kenduta, hiru orduan zortzi euro irabazi nituen.

Bigarren gaueko lehen 30 minutuetan, bizikletako gorpila zulatu zitzaidan eta, ondorioz, hurrengo ia bi orduetan joan-etorri guztiak oinez egin behar izan nituen, hirigunetik kanpoalderaino eta alde-rantziz. Hurrengo egunean, gorpila konpontzeko erosi nuen ganbera berria kaskar samarra zela deskubritu nuen eta gau osoa galdu nuen bizikleta prest jartzen. Lehen aste estresagarriaren ostean, 30 euro baino ez nituen lortu; alegia, Glovoren motxila horiaren truke ordaindutako erdia berreskuratu nuen.

Hala ere, halako aste baten ondoren, bizikletaren gorpilak konpondu, aplikazioaren arazoak argitu eta etorriko ziren matxurentzako erremintak erosi ondoren prest nengoen berri-z motxila horia bizkarrean nuela aritzeko. Dena harrigarriki ondo joan zen: 33 orduz lan egin nuen, ez nuen

inolako arazorik izan eta 271,23 euro irabazi nituen, BEZaren %21 kendu gabe. Geroago konturatuko nintzenez, ezohiko aste aparta izan nuen. Are interesgarriago, bizikletaz ibiltzearen zirrara eta bi gorpilen gainean nuen konfiantza sentsazioa berreskuratu nituen. Urte mordo bizikleta gainean autoak saihesten eman eta gero, nire saltsan sentitzen nintzen. Kale ilunetan barna murgilduz, ziztu bizian, segurtasunez beteta. Hori bai, bakar-bakarrik nengoen, nire inguruko familia eta lagunarteko afarien epeltasunean elkartuta dagoen bitartean. Egoera honetan, semaforoei arriskurik gabe muzin egiteko eta autoen argiak eta oinezkoen norabideak aurreikusteko gai sentitzen naiz, bizikletako balazta gero eta gutxiago erabiltzen dut. Haizea aurpegian eta nekea hanketan, baina aurrera egiten dut hurrengo helmugaraino, janari-banatzailen industriaren mesedetan.



## Boterearen plataformak


**B**izikletaz ibiltzean daukadan gogo bizia deskribatzea Glovo enpresaren alde egitearekin nahas liteke. Glovok, Deliveroo eta mota horretako gainerako enpresek lan baldintza prekarioak zuritu ohi dituzte argudio honekin: “langileak dibertitu egiten dira”. Arazoa, hain zuzen, hemen datza: hau ez da *hobby*, lana baizik. Zaletasunen eta behararren arteko nahasketa arriskutsua da hau. Lan ordaindua, gustatu ala ez, hori baino ez da: sos batzuk lortzearen truke eskaintzen dugun denbora. Zure ametsetako lanean aritzeagatik ez zenuke zertan inolako baldintza esplotatzailerik onartu behar. Glovoren kasuan ere, beste horrenbeste. Mezulariak aspalditik existitu dira, ziur nago nik baino lehenago beste punki anarkista askok antzeko aska-

tasun sentsazioa bizi izan dutela bi gurpilen ganean. Baina iraganean, gutxienez, horren truke kontratua eta ordain duina ematen zizkieten.

Glovorekin batera euskal gizar-tean enpresa eredu jakin bat normalizatzen ari da. Hau da arazoa, bizikletarekin disfrutatzea gai tangenziala da. Azken finean, Glovo ez da “iraultza” honen aktore bakarra, munduan aitzindari ditugu Uber, Airbnb, Amazon Flex eta WeWork, besteak beste. Konpainia hauek arau eta ohitura berriak sortzen ari dira: langileak autonomo gisa kontratatzen dituzte eta haiekiko harremana aplikazio baten bidez kudeatzen dute. Kapitalismoaren eboluzio berriaren parte dira, dagoeneko Trumpen herrialdean azkarren hedatzen ari den negozio

mota. Han, horrelako “plataformak” ia esparru guztietan topa daitezke. Kamioi bidezko garraioak, taxiak, garbiketa zerbitzuak, supermerkatuetako erosketak... Imajina dezakezun edozein sektore horren atzaparreran erori da dagoeneko.

Enpresa hauek hutsune legal bat topatu dute eta horrek langileekin botere banaketa desorekatua ezartzeko aukera eman die. Lan tradizionalen berezko ezaugarriek esker langileek botere handiagoa zuten gatazken eta negoziazioen aurrean. Eredu horietan sindikatuen indarra handia zen, langileak leku jakinetan biltzen zituzten industrietan legeak emandako negoziazio kolektiboaren baliabideaz baliatzen ziren eta, batez ere, lanetik kanpoko harremanak garatzeko joera zegoen, lotura



sozialaren eta kooperazio sentimenduaren mesedetan.

Glovo eta antzeko konpainiek faktore horiek existitzen ez diren egoera sortu dute. Gure artean elkartasunez eta enpatiaz jokatu ordez, langileen arteko lehia sustatzen dute. "Bikaintasun maila" delakoaz baliatzen dira, ranking horretan dugun postuak agintzen baitu astero zenbat lan egingo eta zenbat diru lortuko dugun. Nagusiak lan elkarrizketetan ezin argiago azaldu zigun: "Lankideak zarete, bai, baina baita lehiakideak ere". Lanaren alderdi guztietan dagoen filosofia da hau. Gainera, ez dugu elkar ezagutzeko leku edo egoitzarik. Jatetxeetan baino ezin dugu elkarrekin topo egin, horiek gure hanburgesak ordubeteetan baino azkarrago prestatzeko gai ez direnean.

*Gig* ekonomiak sozialki baztertuta dagoen jendea bultzatzen du isolamendua areagotzen duten lanetara, beharraren beharrez. Langile hauentzat hizkuntza, estatus legala edo beste hainbat arrazoi oztopo izan daitezke lan kontratu onak lortzeko, baita lan horietan beste langileekin batera antolatzeko ere. Baldintza sozial eta ekonomiko duintu samarrak dituztenek, beren intere-

sen alde egiteko eta lan kaskarrak baztertzeko aukera daukate. Baina egoera prekarioan egonez gero, lan posible bati uko egitea jokaera arriskutsua izan daiteke. Glovoko langile gehienok ez dugu beste aukerarik, lankide batzuentzat hau izan da azken bost urteetan lortu duten kon-

“

**GLOVO EZ DA  
"IRAULTZA" HONEN AKTORE  
BAKARRA, MUNDUAN  
AITZINDARI DITUGU UBER,  
AIRBNB, AMAZON FLEX ETA  
WEWORK, BESTEAK BESTE.  
KONPAINIA HAUEK ARAU  
ETA OHITURA BERRIAK  
SORTZEN ARI DIRA**

tratu bakarra. Espainiako Estatuan bost langiletatik batek langabezi denboraldi luzea sufritu du *gig* ekonomian jardun baino lehen.

Autonomo estatusarekin lan egiteak egoera latzago bihurtzen du. Glovon lotura sozialak murrizak eta

iragankorrak dira, lankideak aurkari ez ikustea zail egiten da eta istripurik edota gaixotasunik izanez gero, *malo*. Horri guztiari osagai berriak gehitu behar zaizkio: geolokalizazioa, telefono adimentsuak eta desesperazioan edozein lan-baldintza onartuko duen populazio prekarioa. Langileok lehiakide bihurtzeko nahasketa berri eta eraginkorra. Glovoren moduko konpainietako langileek ia ez dute haien eskubi-deen alde borrokatzeko beharrezko diren harremanak garatzerik, enpresek diseinatu dutelako horrelakorik gertatzea galarazten duen lan ingurunea. Etorrin ikusezin eta prekarioak gara, nola lor genezake inolako langile botererik? Honen guztiaren ondorioz, ez da harrizkoa *gig* ekonomiatik kanpo daudenekin alderatuta guk %43 eta %62 arteko diru sarrera txikiagoak izatea.

Hori guztia batera hartuta, langileok Glovorekin dugun harremana erabat asimetrikoa dela garbi ikusten da. Ezin dugu giza-baliabide sailleko arduradunaren bulegora zuzenean jo, ez da halakorik existitzen. Arazoak posta elektronikoko helbide baten bitartez kudeatzen dira eta enpresak eskaintzen duen arduradun bakarrak astean sei ordu baino ez ditu ematen lan horretan. Gauean euripean eta bakarrik botata egoten gara, mugikorreko txat motel eta inutila lagun bakarra dugula. Eskerra kopuruaren arabera ordaintzen digutenez, eta ez ordu kopuruaren arabera, konpainiak ez du galerarik izaten aplikazioak funtzionatzen ez badu, bezeroaren helbidea aurkitzeko ezinezkoa suertatzen bada edota janaria prestatzen denbora luzea ematen badute. Hortaz aparte, eguraldi txarra egiten duen bakoitzean zor zaigun aparteko ordainsaria jasotzeko guk geuk eskatu behar dugu posta elektronikoz. Eta aplikazioak bezeroaren sinadura onartzean arazoak izaten dituen ere, geu gara denbora eta dirua galtzen



ditugunak. Lanbide tradizioaletan arazorik izanez gero, enpresak ahalik eta azkarren konpontzeko interes argia izaten du, langilearen lanordua alferrik gal ez dadin. Glovon, aldiz, aplikazioarekin, bezeroekin, garraioarekin, jatetxeekin problemarik izanez gero, langilearen kalterako izango da beti. Glovok ez du dirurik eta bezerorik galtzen eta, hortaz, ez du aparteko interesik.

Honako hau egun nazioarteko ekonomian garatzen ari den aldaketa erraldoiaren zati da eta plataformen bidezko teknologia berriei esker azkartzen ari da. Negozio barentzat dirua irabazteko modurik onena kostuak esternalizatzea eta irabaziak pribatizatzea da. Askoren ustez hori da kapitalismoaren helburu nagusia. Jokaera hau azaltzeko adibide ohikoa, hondakinak zabortegira eraman eta zergak ordaindu beharrean, zaborra lakura botatzea duen enpresarena da. Enpresaren kostua ekosistemari egokitzen zaio, baita inguruko biztanleei ere: lako ura edan edo han bainatzen direnek kalteak jasango dituzte. Eta, azkenean, erakunde publikoren baten lakua garbitzeko ardura hartu beharko du.

Tamalez, adibide hau ez da atzo goizekoa. Zaborra uretara bota dezakezu, baina betiere ordaindu beharko dituzu zure lantegiko kostuak, soldadak eta lehengaiak. Etekin handiagoak lortzeko bidean, saihestezinak diren gastu horiek guztiak dira "oztopo" nagusiak enpresentzat. Glovoren ildotik doazen enpresentzat, aldiz, ez dago ia benetako kosturik behin aplikazioa sortuta. Langileak autonomo edukita gizarte segurantza eta aseguruak ordaintzea ekiditen dute, zer esanik ez motoen, bizikleten eta autoen kostuak. Glovok ez dit mugikorra kargatzeko behar dudana elektrizitatea ere ordaintzen; hiriguneetan lokal xume bat alokatzea nahikoa izaten da konpainiarentzat. Glovo, hitz gutxitan, ez da mundu errealean exis-

titzen. Presentzia fisikorik ez duen mamu etereo modukoa da, ezin da ez ukitu ez harekin harremanetan jarri eta, bitartean, kaleetan zehar harro dabil dirua han-hemenka xurgatzen.

Lehen, banaketa enpresek beren gain hartzen zituzten langile eta egoitza gastuak; egun autonomo faltsuek edota gizarteak berak ordaindu behar ditu. Bizikleta apurtzen bazait, konponketa neuk ordaindu beharko dut. Lan istripurik izanez gero, osasun zerbitzu

publikoak ordaindu beharko du. Era berean, Glovok ez dit egun librerik emango gaixotzen banaiz edo seme-alabarik izaten badut. Orokorrean, janaria leku batetik bestera garraiatzeko prozesuaren kostu guztiak kanporatu ditu Glovok modu eraginkorrean. Aplikazioa, zerbitzari informatikoak eta ondo burututako bidalketak baino ez ditu ordaintzen. Kostuak, langileentzat edo gizartearentzat; etekinak, Glovok baino ez ditu jasoko.



## *Pizza ordu erdian, hil ala biziko kontua*

**I**gande gaua da eta betiko kaleetatik abaila bizian noa, saltoki-gune bat eta hirigunea lotzen dituen hiribidean. Bederatzi ordu eman ditut lanean eta arreta mantentzea gero eta zailagoa zait. Atzo nire bikotekidearen eta beste lagun baten urtebetetzea ospatu nuen eta “galdutako” ordu horiek berreskuratatu behar ditut hil bukaeran lan-sari dezenterik lortu ahal izateko. 22:00ak dira eta parean oinezkotzat hartu ditudan figurak parkimetroak direla konturatu naiz. Amaitu baino ordubete lehenago zorabio sentsazioak jo eta eskulekuaren gainean botaka egiteko gogoari eutsi behar diot. Ez pentsa bi gorpilen gainean eskarmenturik ez dudarik, bizikletaz oso bidaia luzeak egin ditut. Oraindik gaztea naizela eta hala-no-

la sasoi onean nagoela esango nuke. Baina honelako lanegun batek nahi ala ez higitzen nau: bederatzi orduz telefonoak atsedetik eman ez, hiri-ko trafikoan sigi-saga ibili, bidegorriak gurutzatu baino lehen sekula begiraten ez duten oinezko axolagabeak etengabe saihestu... Edonor txikitze moduko estres handia da.

Biribilgune batetik igaro eta metalak errepidearen aurka ateratzen duen zarata entzun dut. Atzera begiratu eta lurrean gizon latinoamerikar bat ikusi dut, argi eskasa jasotzen duen zebra-bide batean. Motozikleta urdin baten azpian dago, motorrak atzealdean Domino's Pizza dioen kutxa dauka. Azkar bira egin eta bizikletatik jaitsi naiz. Nire bizikleta-argi garestiek datozen autoak ohartaraziko dituen esperoan, gizonaren al-

boan makurtu eta aztertu egin dut. Hanka ez zaio motorraren azpian trabatu, baina badaezpada ere galdetu egin diot. Shockean dago, ezin du erantzun. Begietara begiratu, ozen eta argi errepikatu diot: “Motorrean trabatuta al zaude?”. Buruarekin ezetz dio. “Orduan, poliki motorra gainetik ken diezazuket. Motorra mugitzea nahi al duzu?” Buruarekin baietz. Dagoeneko dozena erdi bat pertsona azaldu da, baina haiek ere shock sakonean daudela dirudi. Sendokote itxurako bati laguntza eskatu eta bion artean motorra gainetik kendu diogu. Amaitu ostean, konturatu naiz gainerako oinezkoak pizza-banatzaillearengana joan direla eta barne zauririk izan dezakela ohartarazteko berandu da. Jendeak jakin beharko luke.



Dagoeneko norbaitek Poliziarri deitu dio eta jendea gizonaren gaintetik apur bat aldentzeko egin ditudan saiakerak alferrik direla ikusi eta gero joatea erabaki dut. Nire bezeroa 100 metrora bizi da eta dirua galtzen ari naiz, lanean jarraitu behar dut. Bizikletan igo eta abian jarri naiz. Minutu batzuk geroago, bezeroari nire aurpegi-rik onena jarri eta eskerrak eman ostean, istripuaren tokitik pasatu naiz. Bi Polizia autok eta ambulanzia batek kale osoa oztopatzen dute, moto-gidaria esku-ohe batean jartzen duten bitartean. Hurrengo eskaeraren bidean nabilela gizon horren hurrengo bi egunak nola-koak izango diren pentsatu dut. Onen-onenean legalki lan egiteko paperak izango ditu, bestela izorra-

tuta dago. AEBetan ez dugun bertakoaren moduko osasun zerbitzu publikoari esker, aurrezkiak galtzeko arriskurik ez du, baina motor ba-



**LANGILEAK AUTONOMO  
GISA KONTRATATZEN  
DITU GLOVOK ETA  
HAIEKIKO HARREMANA  
APLIKAZIO BATEN BIDEZ  
KUDEATZEN DU**

ten gainean ez da luzaroan ibiltzeko gai izango. Domino's enpresak, nahiz eta orduko sei euro baino ez

ordaindu, banatzaileentzako aseguru pribatua dauka, Glovok ez bezala. Kontratu ona izateak istripuari aurre egiteko aukera eman behako lioke, denboraldi bat bajaran eman ostean berriz ere lanera itzultzeko aukera bermatzen duelako. Nire lanean eta sorterrian halako babes neurrien berririk ez dugu. Langile eskubideen babespean ez dagoen langilearentzat istripu honek beste dimentsio bat hartuko luke. Harrentzat, lanean egunero hartzen dituen arrisku txikiak erraz-erraz bihur daitezke bere kontrolpetik kanpoko arazo larri. Pedalei eragiten urrundu bitartean, gizon horrek izan lezakeen babesik txikienak go-goan ditudalarik, zera pentsatzen du: gaitz erdi...Latzta bada ere, hau guztia pizza baten truke gertatu da.



## Esternalizazio berritzailea: lanik gabe utziko gaituena

**G**lovon igarotako denboraldian, estatubatuarra izatea behin baino gehiagotan izan dut hizpide. Glovoko langile ia guztiak etorkinak dira eta ia guztiak AEBetan egonaldi labur bat egin dute edo, bederen, hara joateko gogo bizia dute. Ez da harritzekoa. Amerikar ametsaren propagandak eta azkar aberasteko ameskeriek hornitzen badute zure testuinguru kulturala, orduan ez zaizu xarma handiko plana irudituko Euskal Herrian orduko sei euroren truke hanka apurtzea. AEBetako kapitalismoaren oinarriak lehia eta anbizioa dira; alegia, zure gainekoekin identifikatzeko eta zure balioa parekoekin borrokan erakusteko beharra. Zoritxarrez, hauek errealitatek urrun dauden ideiak besterik ez dira eta esperientzia pertsonalaren bitartez baino ezin dira gezurtatu. Behin eta berriz lan-kideak Osaba Samekin ametsetan ikustean, ameskeriak errealitatearekin aurrez aurre jartzeko beharra sentitzen dut, estatubatuar arruntaren bizimodua ahalik eta modu argi eta ulergarrienean adierazteko hitz eta metafora egokien bila. Beti bezala, urrutiko intxaurrak hamalau.

Bai, batez beste, AEBetako langile batek hemengoak baino gehiago kobratzen du, baina datu simple honek errealitate askoz latzagoa ezkutatzen du. Adibidez, nirekin batera orain dela gutxi graduatu ziren ikas-kideen ibilbideak datozkit gogora. Bi sailetan sailka daitezke. Lehena, klase ertainean jaiotakoak: beka batzuk lortuta eta gurasoen aurrezki apalen kopuru mardula inbertituta ere, azkenik, 100.000 eta 200.000 dolar arteko mailegua eskatu behar izan dute matrikulak, liburuak eta alokairuak ordaindu ahal izateko. Dakidanez, horietako guztiak Starbucks gisakoetan harrera-lanetan

daude, 40-50 orduko lanaldietan, doi-doi aurrera egiten. Bigarren multzoan zorrak ezagutu ez dituztenak daude, beren gurasoek urtero eskudirutan ordaindu dituztelako ikasketen prezioa (60.000 dolar), alokairuaren 15.000 dolarrak eta eguneroko gastuetarako beste milaka batzuk. Ikasle horiek, behintzat ezagutzen ditudanak, egun banku-sektorean dihardute, Goldman Sachs moduko enpresetan.



**AMERIKAR AMETSAREN  
PROPAGANDAK ETA AZKAR  
ABERASTEKO AMESKERIEK  
HORNITZEN BADUTE  
ZURE TESTUINGURU  
KULTURALA, ORDUAN  
EZ ZAIZU XARMA HANDIKO  
PLANA IRUDITUKO  
EUSKAL HERRIAN ORDUKO  
SEI EUROREN TRUKE  
HANKA APURTZEA**

AEBetan goi mailako ikasketak ez dira gazteentzat etorkizun lazgarri hau saihesteko modu segurua. Hauxe dugu ekonomiaren arau berria eta ez da batere itxaropentsua. BPGaren hazkundeak gora egin du 2008ko krisialdi aurreko zenbakiak gailendu arte. Hala ere, 2007arekin alderatuta, 2015ean %5 lanpostu gutxiago zegoen. 1980ko hamarkadatik hona gainbehera bizian daude lanpostu finko eta lanaldi oso-koak, sindikatuen eta legediaren babesa zutenak, osasun-asegurua bermatzen zutenak eta aurrezteko,

enpresan igotzeko eta erretiro duina lortzeko aukera ematen zituztenak. Hauek ordezkatzeko sortzen ari direnak, ordea, aldi baterakoak dira, lanaldi erdikoak gehienetan, aseguratik gabekoak eta soldata urria ematen dute. Glovon topa daitezkeen pare-parekoak, alegia. Gauzak horrela, soldata-piramidea hartuta, 1979tik tontorreko %1en soldatak %240 igo diren bitartean, langileen erosahalmena estatiko mantendu da bizi-kostuaren gorakadaren aurrean. Egun estatubatuarren %47rentzat ezinezkoa litzateke 400 dolar lortzea ezusteko larrialdi baten aurrean. Lanpostu duinetan ere legeak ez du asteko atsedeen ordu kopuru jakinik ezartzen, ez dago oporraldi ordaindurik, are gutxiago gurasotasun baimenik, eta osasun zerbitzua zientzia fikzioa da. Edozein enpresaburuk, ordea, batez beste langile baten soldata baino 400-500 aldiz gehiago irabazten du. Frantziako Estatuan 91 aldiz gehiago irabazten dute eta Espainiakoan 125 aldiz gehiago. Euskaldun batzuk serio-serio entzun ditut kexaka Mondragon Korporazioak proportzio hau hirutik bederatzira igo ostean. Irribarreari eustea zaila zait halakoetan.

Urrutitik ikusten dut AEBetako ekonomia gero eta sakonago erdibitzen: batzuk dena ematen ari dira gutxi batzuek dena irabaz dezaten. Geure begien aurrean, soldata eta eskubide duinetako lanpostuak txikitu eta hauek *gig* motako lanekin ordezkatuak, Uber, Amazon Flex eta gisakoen eskutik. Batzuk dinamika honen aurrean aho bete hortz geratu arren, oraingo egoera gorria ez da harritzekoa, langile-boterea ahultzeko hamaika erreforma ekarri dituzten hamarkada hauen buruan. Zenbaiten ustez ekonomia efizien-

tzia eta produkzioa maximizatzeko joko hutsa da, eta hala, enpresa arrakastatsuek gizartearen mesedetan jokatzeko dute klase ertain diruduna sortuz. Beste batzuek, aldiz, jabeen eta familia langileen arteko hil ala biziko borrokatzat dugu ekonomia. Eta tira-bira horretan, hobekuntza oro indarrak bilduz eta herri boterea sustatuz baino ez da etorriko.

XX. mendeko ekonomia kolonialistaren berezkoak diren desoreka eta esplotazioa ahaztu gabe, fenomeno berri eta arriskutsu baten aurrean gaudela esan dezakegu. Plataformen bidezko enpresen mundu honetan bi lan mota baino ezin ditugu aurkitu. Glovoren kasuan, alde batetik, oso sari xume baten truke janaria garraiatzen aritzen direnak –kontratupean egongo balira haien soldata legez kanpoko izango litzateke ezberrik gabe–, eta bestetik, jabeak, aplikazioa sortu eta ondoren konpainia kudeatzen dutenak. Glovok duopolioa sortu du, bi langile mota baino ez daukan enpresa. Batzuek egiazko soldatak, gizarte segurantzaren eta ehunka, milaka edota milioika euroko irabaziak eman ahal dituzten akzioak erosteko erraztasunak dituzte. Besteek, fisik ere ez.

XXI. mendea baino lehenagoko manufaktura-industriaren irudia zaharkituta geratu zaigu. Gaur egungo erraldoi teknologikoen –Facebook, Google, Twitter, Uber, etab.– ia ez dute langile eta kokaleku fisikoen beharrik –normalean AEBetan izaten dituzten egoitza nagusiez gain–, eta zergarik ez dute apenas ordaintzen. Praktika hauekin, irabaziak itzelak dira kostuen aldean. Izan ere, ez baita erraza enpresa hauen gastuak zeintzuk diren zehaztea.

Esternalizazioari dagokionez, Glovoren “berrikuntzarik” nabarmenena langile oro autonomo bihurtzea da. 2013tik aurrera Espainiako Estatuan autonomoen kuota sistema progresibo baten arabera ezarri dituzte. Hasieran, hilero 60 euro ordaindu behar dira eta urte-

betera, zure negozioak irekita badirau, kuota 100 eurora igotzen da. Azkenik, hirugarren urtetik aurrera hilean 364,22 euro ordaindu behar da. Glovoko lan elkarrizketan kuota honi buruz galdetu nuen. Nagusiak eguraldia deskribatzen erabiltzen den tonuarekin komentatu zidan ia langile guztiek lana hasi eta urtebetera utzi egiten dutela, kuota igo ahala ordaindu ezin dutelako. Nire

kasuan hasiberrientzako kuota soldataren hamaseirena hartu zidan, kuota osoa ordainduz gero, soldataren erdia hartuko zukeen.

Beste era batez esanda, Glovok enpresari txikiei laguntzeko politika publiko bat hartu du eta langileei gizarte segurantzaren kostuak ez ordaintzeko erabiltzen du. Langile guztiek urtebetean lana uzten dutenez, Espainiako Estatu Glo-



vori itzelezko laguntza ematen ari zaio, zuzenki ez bada ere. Subsidio hau gabe Glovoren lan egitura desegingo litzateke: langile bakoitzeko 304,22 euro aurrezten ari da hilerro. Esate baterako, Valentzia hirian 200 *riders* egonda, 60.844 euro gutxiago ordaindu behar ditu hilerro. Estatu osoan milioiak ote?

Enpresa hauei guztiei arretaz behatuz gero, estrategia baten zantzuak aurki daitezke. Denek ezauzgarri bera partekatzen dute: eskaintzen dituzten zerbitzuak oso merkeak edo doakoak dira. Zinez enpresari txarrak direla pentsa genezake, baina, egiatan, beren negozioak dakarren kostuak externalizatuz eta prezio ia erridikulua ezarri, ekonomiaren sektore osoak monopolizatzen ari dira. Geroago, monopolioa eta externalizazioa baliatuta, prezioak igotzen

dituzte, kontsumitzaileen kaltetan –langileek, jakina, ez dute gehiagoko kobratuko-. Harrapakari hauek beste esparruetara hedatu ahala, soldata hobeak eta lan eskubideak dituzten industriak xurgatu eta *gig* lan ziztrinez betetako paisaia antzua uzten ari dira. Langileak, indibidualizatuta bezain etsita, ezin dira joera honen aurrean altxatu; jendeak, aldiz, ez ditu aldaketa hauek zalantzatan jartzen edozein berrikuntza teknologiko halabeharrezkotzat ikusten duelako.

AEBetan eraginak aski hedatuak dira dagoeneko. Hezkuntzan, aldi baterako lanpostuak dira nagusi irakasleentzat eta erabiliko duten material guztia beraiek erosi behar dute. Zamaletan dihardutenek gero eta azkarrago egin behar dute lan soldata beraren truke. Garbitzaileak kaleratzen dituzte, ondoren

lan bera egiteko, baina kontratu tamalgarriago batekin. Garraio-kamioiak gidariek erosi behar dituzte eta zorra kitatzeko zortzi ordu baino gehiagoko lanaldia bete behar dute. Azkenean erraldoi teknologikoen berrikuntzarik handiena langileen artean etsipena eta prekaritatea zabaltzea baino ez da izan. Beren estrategia ezartzeko jokaera sistematikoa da hau, langile klaseko elkartasun eta boterea garatzeko itxaropena txikitzea du helburu. Profil ezin espezifikoa behar ez duen edozein lanpostu sistema honen biktima potentziala izan daiteke. Taktika hau hainbat esparrutara zabaldu da, nahiz eta horietan teknologia berrien zantzurik ez egon. Langabezia tasa altua baino ez dute behar, herritarrak edozein baldintzapeko lan prekario onartzeko prest izateko.

## Etorkizuna: zeuk esan

**A**EBetatik aspaldi joan nintzen eta oraingoz ez dut itzultzeko inolako asmorik ere. Hau esatean hemengo jendea txundituta utzi ohi dut. Euskal herritarrek familia eta herriarekin duten harreman estuagoagatik ote? Askok oraindik ere ez du ulertzen zergatik etorri nintzen hona. Egia esan, behin itzuli egin nintzen. Laster konturatu nintzen AEBetan zer-nolako perspektiba “xarmagarriak” nituen eskura: lan gorrotagarri bat hautatzea, txarra eta alokairua ordaintzeko behar beste emango ez zidana. Ikaskide ohiekin bildu nintzela gogoratzen dut. Zorretan, jatetxeetan zerbitzari eta gutxieneko soldata kobratzen ari ziren. Are okerrago, halako egoeratik irteteko inolako planik gabe. Gogoratzen dut autoa hartu behar izaten nuela leku guzti-guztietara joateko, tabernetara joateko ere bai.

Gogoan dut lagunekin plan lasaia egiteko 100 dolar ordaindu behar izana. Itzultzea erabaki nuen.



**EUSKAL HERRIAN,  
ERRESISTENTZIA  
KOLEKTIBOA ORAINDIK  
SORTZEAR DA.  
GASTEIZEN, NIRE  
BIZITOKIAN, HASERREAK  
GRAFFITI FORMA HARTU DU  
GLOVOREN EGOITZAREN  
HORMETAN**

Ez nintzen hona etorri hemengo gizartea izugarri eroso zaidalako edota Euskal Herriaren xarma

paregabeagatik. Hemen geratzea erabaki dut ez dudalako pentsatu behar ea zein den okerrago: tiro bat jaso ondoren hil ala ospitaleko faktura mordoari aurre egiteko biziraun. Alokairua ordain dezaket 06:00etatik 20:00etara arte lan egin behar gabe. Lanetik etxera iristean, lasaitu eta lagunekin hitz-aspertuak egin ditzaket burua etengabe mugikorraren edo lanaren menpe izan gabe. Kontu hauek ez dira huskeriak; izan ere, haiei esker bizi nahi dudana bizitza izan dezaket. Distantziatik begiratzen dut zer nolako txikizioa eragin duten nire gurasoen belaunaldiaren erabakiek AEBetako ekonomian, politikan eta gizartean. Benetan espero dut akats horiek hemen ere ez direla errepikatuko.

Itxaropenerako arrazoiak dauka. Glovoren aurkako erresisten-

tzia zantzuak dagoeneko ikus daitezke. Sindikatu eta abokatuak fronte legalean gogor ari dira eta langileen aldeko epai batzuk lortzen hasiak dira. Artikulu hau idatzi dudan bitartean Glovo helegitetan dabil riderrak benetako autonomoak direla eta bere jarduera erabat legala dela defen-

datu nahian. Sare sozialen bitartez *gig* ekonomiako banatzaileak lehen sindikatu eta kooperatibak sortzen ari dira, grebak antolatu ahalizatea eta indarrak metatzea helburu. Bartzelonan eta Madrilen startup alternatiboak agertu dira Glovo eta antzekoei konpetentzia zuzena egin nahian. Euskal

Herrian, erresistentzia kolektiboa oraindik sortzeaz da. Gasteizen, nire bizitokian, haserreak graffiti forma hartu du Glovoren egoitzaren hormetan. Horrekin, argi utzi nahi izan da arriskuaz kontziente den jendea egon badagoela. Hasiera gisa ez dago txarto, baina hobeto egin dezakegulakoan nago. ●



AZOKA.ARGIA.EUS

AZOKAN  
SALGAI!  
15€

⊕ 4€ BIDALKETA GASTUAK



Hizkuntz  
eskubide baten  
urraketaz  
informatzeagatik  
epaituak

 #UtziArgiaBakean